

# Balorezko proposamena

Ur- eta kafe-banatzailer baten diseinua aldatu nahi dugu, kontzeptu berri batekin. Erabili ahalak zakarrontzira botatzen diren plastikozko edalontziak erabili beharrean, hondakin organikoak erabiliz sortutako edalontziak erabiliko dira (250ml, 10x8cm). Gainera, edalontzi hauek erabili ez ezik, bakoitzak bere edalontzi propioa erabili ahal izango du ere.

Demagun zure bulegoan honelako makina bat duzula; edan nahi duzun bakoitzean plastikozko edalontzia erabili beharrean, zure taza propioa edo edalontzi organikoak erabili ahal izango dituzu.

## **Helburua:**

Plastikoaren erabilera murriztea. Normalean, makina honen modukoak erabili eta botatzeko edalontziak erabiltzen dituzte, baina gure makinek materia organiko berrerabilitarekin eginiko edalontziak eskaintzen ditu, hau da, gure makinak praktikoak ez ezik “Eco-friendly” izango dira ere.